

Iritzia

Euskararen normalizazioa

Euskara normaldua, euskara teknikoak

Joxe Ramon Etxebarriak berak, gai honi buruz idatzitako bere beste lan batetan emandako definizioa aipatuko dugu hasteko: "Bizi dadin, euskara bizitza modernorako egokitu behar dugu. Baina, bizitza modernoak milaka ditu alderdiak. Alderdi espezializatuak: bertan hitzitzeko, hizkuntza berezia eskatzen duten alderdiak. Hauek guztiotan erabiltzen den hizkuntza, hizkuntza teknikoak deituko dit. Eta euskaraz ari naizenez gero, eta gai teknikoak euskaraz erabiliko ditudanez gero, erabilteko horretan baliatuko ditudan hitzak eta joskera, euskara tekniko hitzaren barruan bilduko ditut".

Euskara teknikoak, beraz, alor berezitueta erabiltzen den euskal hizkera eta hiztegi landua da. Eta ba dirudi espezialista bakoitzak gaurregun horren premia bizia duela, segurtasunez bere munduan ibiliko baldin bada.

Kultura bereziaren —eta, beraz, hizkera-hiztegi bereziaren— fenomeno nabarmena da gaurregun. Gero eta alor espezializatuak sortzen eta lantzen saiatu da kultura modernoa, zientzia eta teknika aurreratuta eta espezifikotuz joan diren neurrian.

Gaurko kultura orokorra eta horri dagokion euskara "hiritartua" gaunditzen duen mailako lana eskatzen du euskara teknifikatuak. Horretarako datoz, hain zuzen, Hitzegi tekniko-berezitua, gai berezituko lantzen eta horiek erabiltzeko hizkera sortzen duten artikulu eta txetxuluruekin batera.

Especialisten lana

Euskara teknikoak lantzea eta finkatzea ez da Euskaltzaindiaren lana: berak ere aitortua du hori. Horrek ez du esanahi, Euskaltzaindiak bere eginkizun berezia ez duenik alor horretan ere: hizkera eta hiztegi tekniko-berezituetan lana egiten dutenei funtsezko arau linguistikoak eman bear bait dizkie.

Bestalde, hizkera eta hiztegi lar-teknifikatuaren arazoa soziala ere bada. Berezitateko argot superteknikatuek arriskua daukate aparteko mundua egiteko, ez gramatikari eta ez gizarte

orokorrari begiratu gabe. Arriskua bakarrik ez; benetako egoera da hori gaurko munduan. Ikusi edo entzun besterik ez dago medikuek, juristek —eta orokorki Administrazioak—, linguistek beraiek erabiltzen duten hizkera, gizartearen kultura orokorretik erabat urrunduak. Eta era beretsuan bestelako zientzia, teknika eta berezitate zientzia. Alor batzuk, hiztegi superteknikatua ezezik, erabat arkaikoa ere erabiltzeko joera dute.

Landu nahi den euskara tekniko eta teknifikatuak ere derrigorrez dauka gaunditu beharra eguneroko hizkera eta hiztegi arruntak; populismoak ez du batere balio mundu horretan. Baina, bestalde, bere mundu berezitueta ari diren espezialista eskalduneri zera eskatzeko eskubidea daukagu: ez daitezela saiatu beren "olinpoko" hizkera-hiztegi inork ulertuko ez dituenak eta ahal den bitxiarik lantzen eta "superlantzen". Hemen ere gehiegizko elitismo eta aristokratismotik ihesezin beharra dago. Guzti honek bereziki balio du, berez gizarte orokorrari begira lantzen diren hizkera-hiztegiatarako: administrazioarenako eta medikuntzarenako, adibidez. Garai onean dago euskara maila teknifikatua eta kultura orokorrek maila ahal den gehien elkarrengana hurbiltzeko, hizkera-hiztegiak dogakienez.

Tradizionalki erlijio-alorrek euskara landu izan da gehienbat, nolabaiteko maila tekni-

koan. Bai azken urteotan ikusgarria da hainbat alorretan egiten ari den lana, eta bereziki Zientzia zehatzetan, aldizkarietan, txetxuluruetan, tesien nahiz hitz-zegien bidez. Bereziki aipatzeko dira "Elhuia" aldizkaria eta horren inguruan dabilen zientziari eta teknikarietan taldea, eta UEUren inguruan urtean zehar diharduen Unibertsitateko jendea. Ahaztu gabe noski, beste alorretan argitaratzen diren euskarazko aldizkari, artikulu eta liburu berezituak.

Eginaldi, talde eta erakunde guzti horiek behar dute Euskal Herriko Unibertsitatearen eta euskal erakunde publikoen aldetik laguntza berezia hartu. Areato, plangintza zabal baten premia dago alor horretan ere. benetan euskararen normalizazioa tekni-berezituari egoki erantzun bakoitzak gaurregun.

Kordinazioaren bila: UZEI

Hizkuntza normaldua jasan dezake agian, kordinaziorik ez, eta alor bakoitzeko espezialistak beren aldetik ibiltzea beren hizkera-hiztegiak lantzen, zehazten eta finkatzen. Euskararen egoerak, ordea, ez du horrelakorik onartzen. Euskaltzaindiaren batasun-arauetan oinarrituz, batasun-bidean jokatu beharra daukagu kultur sail guztiatan, euskararen normalizazioa lortuko badugu.

Bide horretarik sortu zen, orain dela hostu urte pasatxo, UZEI. UEUren inguruan eta horren gain, alde batetik; eta, bestetik, berezitate ezberdinetan

euskara lantzen ziharduten eta diharduten talde eta lagunen arteko elkargun eta koordinazio-puntu bezala. UZEI ez du bestelako helbururik.

Ez dago, inola ere, kulturaren alor espezifiko eta teknifikatuetan ari diren indarren gaitetik, ez eta horien ordez ere. Guztientzako azpiegitura eta guztien eragile bezala sortu zela eta izan ez jarraitu behar duela esan daiteke. Bestelakorik balitz, lekuz kanpo egongo litzateke seguruenik.

Orain dela urtebete eztabaida luzea gertatu zen UZEIren inguruan. Hori suspertu eta berotu zutenek bazuten nonbait beldurra, Euskaltzaindi paralelo bat muntatzen ari ote zen hor. Baina benetan, Unibertsitatean eta hortik kanpo alor bakoitzean lanean ari diren zientzilaria eta teknikari eskaldun gazteen dinamikaren beldurra nabari zen. Eta horregatik eztabaida guzti harek dinamika horren kontrako azpilan eta azpizanaren airea hartu zuen. Zorionez, kanpaina hura amaitu zen: eta dinamika horrek aurrera dirau, eta gero eta finkatua da eta sakonagoa eta indartsuagoa dela dirudi, argitaratzen ari diren Hiztegi eta bestelako liburuei eta hor lanean diharduten talde ugariari begiratzeko baldin badiegu.

Zerbitzu publikoa

UZEI hor dago: bere lan eta bere historia. Alferrik asmatuko beste antzekorik. Baina "edozein" UZEI zenbait arriskuri ihesezin behar dio bere erakuntzan.

Argitalpen-entresa pribatu bihurtzeko arriskua du, eta horrelako edozeinen dinamika eta legetan erortzeko: batez ere, errentagarriak izango diren lan eta kontratuak bakarrik bilatu, enpresari eusteko eta hazteko finantzapena bilatu beharrez beharrez. Agian bideragarria da horrelako entresa gaurregun, eskabide pribatu nahiz publiko zenbait erantzun liekena. Telebistarako bikozketa-entresa pribatuak egiten duten bezala. Baina horrela UZEI ez luke bere jatorrizko helburua beteko: eta ezingo luke euskararen normalizazioa teknikoaren

plangintza sistematiko eta iraunkorrik landu eta bete.

Egia da, bestalde, UZEI ez daukala *Erakunde linguistiko ofiziala* izaterik; ez dauka Euskaltzaindiaren lekua betetzetik eta ez bete beharrik. Gainera bi arrisku izango litzateke orduan: bata, Institutu burokratiko bihurtzearena; bestea, euskararen normalizazioaren dinamika etengabe dituen premiei erantzun ezina.

Bere jatorriari zintzo eutsiko badio, eta bere jatorrizko helburuari eta dinamikari atxekiko bazio, *Zerbitzu Publikoa* izan beharra dauka UZEI. Zera esan nahi du horrek: Euskararen normalizazioa tekniko-berezituetan, sail ezberdinetan eta leku diferentetan lanean diharduten lagun, talde eta ekintzak koordinatu behar dituela, batetik; eta bestetik, Erakunde Publikoaren aldetik finantz laguntza edo subentzio finko, iraunkor eta egokia behar duela, normalizazioa tekniko-berezituetarako plangintza eta programa luzarokoak lantzeko eta aurrera eramateko, gizarteak eta euskal kulturak dituzten premia bizien adi egon eta erantzunez.

Bi proiektio ditu, hain zuzen, euskararen normalizazioa teknikoak: bata, irakaskuntzaren eta jakintzen maila eta adar guzietan begiratzeko diena; bestea, euskararen erabilera sozial, profesional eta instituzionalari begiratzeko diena. Bi alderdiak aski lotuta daude; eta bieci erantzun behar die plangintza egokiak.

Euskararen normalizazioa teknikoak Unibertsitatearen egitekoa da funtsean; baina ez alderdi akademikoari erantzuteko bakarrik, eta bai alderdi sozialari ere. Euskal gizarteak euskara normalizatzeko darabean dinamizari eta premiei erabait irekia eta atxekia egon behar du horretarako Euskal Herriko Unibertsitateak.

Dena dela, UZEI —edo euskararen normalizazioa teknikoarako Nolanahiko Zerbitzu Publiko— Unibertsitatearekin lotuta edo hor kokatuta egon behar duela uste dugu.

EUSKAL KULTUR
BATZORDEA
E.K.B.

